

Herritarren Parte-hartzearen Behatokia Gasteiz

EBALUAZIO-TXOSTENA

1. Ez da Gasteizko Udaleko Herritarren Parte-hartzearen Zerbitzuak egindako zerbait, baizik eta EHUko CIVERSITY ikerketa-taldeak Parte-hartzearen Zerbitzuarentzat egindako azterlan bat.
2. Udal erakundeek sustatutako partaidetza-foro eta partaidetza-prozesuen funtzionamendu eta emaitzei buruzko kanpo-ebaluazio bat edukitzearen alde Herritarren Parte-hartzearen Zerbitzuak duen kezka dago horren jatorrian.
3. Aurrez beste lan batzuk ere egin dira: Gizarte Kontseiluak, bere urteroko bilkuretako batean, herritarrek auzogune, elkargune eta beste partaidetza-organo edo prozesu batzuetan izandako parte-hartzearen egoerari buruzko berrikuspen bat egin du. Horrez gain, herritarrei kontsultak egin zaizkie, elkarrizketak egin dira teknikariek, baita bilerak ere talde politikoekin, horiek guztiak horren funtzionamenduari buruzko diagnostiko partekatu batzuk egiteko eta, hala egokituz gero, hobekuntza-neurri batzuk proposatu ahal izateko.
4. Lehendik dugun esperientzia eta ezagutza hori oinarritzat harturik, urrats bat gehiago egin nahi da orain ebaluazio hori sendotzeko, sistematizatzeko, normalizatzeko eta, ahal den neurrian, protokolo baten arabera zehazteko, hurrengo urteetan jarraitasun batez eta konparatu ahal izateko moduan egin dadin.
5. Xede horrekin, *Gasteizko Udalaren Herritarren Parte-hartzeari buruzko 2015-2019 Udal Planak*, "Herritarren parte-hartzearen kalitatea hobetzea" helburutzat duen 4. atalean, honako erabaki hau jasotzen du: "Parte-hartzeari, elkartegintzari eta boluntariorzari buruzko Behatoki iraunkor bat abian jartzea, Gasteizko parte-hartzearen eta boluntario-lanaren egoerari buruz aldizkako txostenak egingo dituen".
6. Erabaki hori, hain zuzen ere, Gasteizko Udaleko Herritarren Partaidetzaren eta Gizarte-etxeen Saileko Zinegotzi Delegatuak eta EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko Zuzendariak izenpetutako hitzarmen baten bidez gauzatu da. Ezinbesteko gardentasunari begira, hitzarmen horren xehetasun zehatzak jendaurrean kontsultagai daude.
7. Helburua Behatoki iraunkor bat abian jartzea bada ere, zuhurtziagatik eta erantzukizunagatik, ebaluazio hau egiteko ardura bere gain hartu duten pertsonak nola Herritarren Partaidetza Zerbitzuko arduradunek adostu dugu hitzarmen hau lehen hurbilpen modura proposatzea, eta hori sinatzen duten aldeak hitzarmenaren testuak adierazten duena baino konpromiso handiagoetan ez sartzea: txosten bat landu beharko da bai hura sinatzen den unean (2018ko uztailean) eta bai amaiera ematen zaion unean ere (2018ko abendua).

Funtsezko hiru tresna edo baliabide

1. Partaidetza-organo desberdinek 2016tik hona egindako bilkuretako aktak berrikustea. Informazio horren bidez, organo horien bilerak egiteko erabilitako maiztasunaren eta horietara joan diren elkarten jarraipen bat egin da. Aldabe auzogunearen funtzionamendua xehetasun handiagoarekin aztertzeko ere erabili da baliabide hau.

2. Elkargune, auzogune eta Gizarte Kontseiluaren bilera desberdinetan izandako parte-hartzea:

- 2018/09/12 2019. urterako Ordenantza Fiskalen eta Prezio Publikoen proiektuaren aurkezpena.
- 2018/09/17 Gizarte Kontseilua
- 2018/09/15 Aldabe Auzogunea
- 2018/10/03 Lankidetzaren eta Garapenerako Elkargunea
- 2018/10/29 Kulturako Elkargunea
- 2018/11/05 Gizarte Kontseilua.
- 2018/11/06 Adineko Pertsonen Elkargunea
- 2018/11/14 Haurren eta Nerabeen Elkargunea
- 2018/11/14 Europa Jauregia: 2019ko aurrekontuen jendaurreko aurkezpena
- 2018/11/29 Osasunaren eta Kontsumoaren Elkargunea
- 2019/01/12 Europa Jauregia. "Parte hartuz bidea egiten" Jardunaldia

3. 2018an eta 2019an partaidetza-organoei buruz egindako bi balorazio-galdetegi azterketa.

GASTEIZKO HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN EKOSISTEMA

- Elkartegintzaren eta parte-hartzearen tradizio luze eta aberatsa. “Gasteiz ez litzateke gaur dena izango, herritarren parte-hartze hori edukiko ez balu” (Sindikoa, 2013)
- Erregistratutako hirurehun bat elkarte (Elkartze Espazioa).
- Ez da ahitu elkartegintzarako, mobilizatorako eta aldarrikapenerako errealitatea, eta hainbat erataria gauzatzen da hori.
- Udaleko Herritarren Parte-hartze Arloak horretarako xedatutako organo eta baliabideen bitartez sustatutako edo harekin loturiko herritarren parte-hartzeari buruzko hurbilpen bat, eta bereziki: Auzogune, Elkargune eta Gizarte Kontseiluaren bidez.

AUZOGUNEAK

- Funtzionamendua desberdina da auzo-elkartek eta elkarte sozialek horrelakoetan duten inplikazio mailaren arabera, baina baita ere inguru bakoitzak dituen arazoaren arabera.
- Parte-hartze apala (batez beste, 25-30 lagun), eta kasu batzuetan, parte-hartze hori gutxitu egin da denborak aurrera egin ahala.

KASUAREN ANALISIA: ALDABE AUZOGUNEA

- ALDABE auzogunearen funtzionamendua arretaz berrikustek eta bere barne-dinamikak berreraikitzen saiatzeko lagundu egingo digu lurralde mailako partaidetza-organoren konplexutasun handiaren hurbilpen bat jasotzen.
- Gaiaren konplexutasuna: saio desberdinetan barrena jarraipena egingo zaien lehentasunezko gai batzuekin batera, udal arlo desberdinetatik erantzun zehatzak eskatu eta, kasu batzuetan, plan eta ekintzetan gauzatzera ere iristen badira ere, denborak aurrera egin ahala premiazko gaiak gehitzen joango dira, egoera desberdinak sortu ahala, baina horien tratamenduak ez du garapen argirik izaten eta batzuetan lehentasunezko gaiekiko arreta desbideratu egiten dute.
- Espazioaren konplexutasuna: auzogune batzuetan topatzen ditugun eremu batzuk heterogeneoegiak dira, eta horrexegatik, zenbait arazori ekiteko orduan tratamendu-urritasun bat dugu beste batzuen aldean, eta herritarrek ere foroarekin eta lanarekin identifikatzeko arazoak izaten dituzte.
- Gizarte-konplexutasuna: auzoetan arazo espazialak eta sektorialak partekatzen dituzte, eragileak, interesak, proiektuak eta ikuspegiak anizkoiztu egiten direlako.

Garrantzitsua da hurrengo ebaluazioetan auzogune bakoitzaren funtzionamenduari buruzko hurbilpen-lan sakon bat egitea, horien indarguneak eta ahuleziak ezagutu ahal izateko baina, baita ere, horietako bakoitzak erdietsitako ezagutza praktikotik ikasteko.

ELKARGUNEAK

Elkargune desberdinek erakutsitako jarduera oso desberdina izan da: batzuek 21 bilkura egin dituzte, eta beste batzuek, berriz, 2 bakarrik.

- ❑ Elkargune bakoitzaren dinamiketara hurbiltzea, bakoitzak izan duen funtzionamendu desberdinaren arrazoiak sakontasunez aztertu ahal izateko.
- ❑ ANIMALIEN BIZIKIDETZA, DEFENTSA ETA BABESERAKO Elkargunearen funtzionamendua sakontasunez aztertzea, bertatik oso gauza baliagarriak ikasi baitaitezke gainerako partaidetza-organo guztietarako. Ikasketa horien artetik nabarmentzekoa da **Elkarguneak udal politiketan duen eraginari buruzko balioespen-proposamena**.

Auzogune eta elkargune desberdinetan parte hartu ohi duten pertsonei egindako bi kontsulta:

1. Herritarren Parte-hartzearen Zerbitzua, 2018ko ekaina-uztaila.
2. Gizarte Kontseilua, Parte-hartzearen Zerbitzuaren eta CIVERSITYren aholkularitzarekin, 2019ko abendua.

INDARGUNEAK


- ✓ Herritarren parte-hartzea sustatzeko eta hobetzeko helburu garbia duen errealitate instituzional bat, Udalaren barruan lan egiten duten eragile guztiek onartua, hots, gobernu-taldeak, talde politikoek eta teknikariek onartua.
- ✓ Herritarrek udalaren eremu instituzionalean duten parte-hartzearen jardunean ibilbide luze bat egina dute, denboran barrena izandako berrikuspenen bidez prozesuak eta mekanismoak hobetu dituenak.
- ✓ Herritartasun inplikatu bat dugu, eremu instituzionalizatuaz haratago, parte-hartzearen ekosistema orotariko eta aktibo bat egituratuz.

Orientabide, eskaera, egitasmo eta proposamen ugari egin dira ondoko gai hauek ardatz hartuta: a) auzogunearen eta elkargunearen funtzionamendua, b) Gizarte Kontseiluaren funtzionamendua, c) saioak hobeto garatzeko mekanismo, tresna eta metodologiak, d) foroen izaera, eginkizunak edo ahalmenak, e) teknikariek foroetan betetzen duten eginkizuna, f) herritarren partaidetza-foroen, talde politikoaren eta gobernu-taldearen arteko harremana, g) parte-hartzearen kultura hobetzea eta zabaltzea

Eta orain zer?

Eredu honek urtetako praktika du atzeab eta hainbat berrikuspen egin zaizkio dagoeneko.

Pentsa liteke prozesu osoaren ebaluazio oso bat egin daitekeela, politika publikoen lau alderdi edo fase handiak kontuan izanik:



1. Diseinua. Partaidetza-eredua sortu zenekoa eta egungo errealitatea aztertzea: horren euskarri den errealitateari buruzko diagnostikoa, hautemandako arazoak, lortu nahi diren helburuak, horretarako xedatutako baliabideak (giza baliabideak eta materialak).
2. Exekuzioa. Programa kudeatzen eta exekutatzen den modua. Erakunde publikoak programen diseinuarekin, exekuzioarekin, jarraipenarekin eta ebaluazioarekin loturik duen kudeaketa-ahalmena neurtzea.
3. Emaitzak. Programaren eraginkortasuna: erabilitako baliabideak eta lortutako emaitzekin duten harremana.
4. Eragina. Eredu honek Gasteizko gizartearen ganean dituen ondorio orokorrak eta epe luzerakoak. Programa honek lortu nahi ziren ondorioak ekarri ote dituen zehaztea, eta ondorio horiek egindako esku-hartzeari zor zaizkion balioestea. Aurreikusi gabeko ondorioak hautematea, positiboak izan nahiz negatiboak izan.

Partaidetza-ereduak egiturazko arazoak ditu, eta premia heldu behar zaie horiei, ikuspegi tekniko-politikotik egoki diseinatutako errealitate bat erro-errotik ahultzea ekar baitezakete.

Erakundeek (batez ere auzo-elkarteek) partaidetza-organoetan parte hartzea prestatzeko eta lantzeko moduari buruzko ezagutzarik ez izatea; foroetan izaera desberdineko gaiak pilotzea, horien jarraipen bat egitea eragozten duela; foroetatik desagertu diren eta inoiz ere agertu ez diren elkarten jarraipena egitea...

Erakunde mailan benetan indartsua den baina gizarte-oinarri ahula duen partaidetza-eredu bat mantentzeak duen arriskua.

Balitzko ahuldade horrek zerikusia du Herritartasun Eskolaren edo Gizarte Etxeetako jardueren eta partaidetza-organoen artean komunikazio-kanalik identifikatu ez izanarekin. Ez dago (edo ez dugu ikusi) **sinergiarik eta elkarrekintzarik** arlo horien artean.

Sinergia horiek funtsezkoak iruditzen zaizkigu: partaidetza-organoetan egiten den lan guztia HEI eta Gizarte Etxeetako jardueretatik elikatzeko eta haiek ere elikatzeko modu bat izango bailitzateke, gizarte-oinarri hori indartuz. HEI eta Gizarte Etxeek laguntzen dute herritarren artean parte-hartzearen kultura hedatu dadin? HEI horiek eta Gizarte Etxeek elkarreterara edo organo eta foroetara parte-hartzaileak erakartzeko tresna gisa jokatzeko dute? HEI eta Gizarte Etxeek bozgorailu edo erakusleho gisa jokatzeko dute organoen jarduerak eta lorpenak ezagutzera emateko?

Ez dugu elkarrekintzarik hauteman bi eremu horien artean. Horrela izango balitz, gure buruari galdetu beharko genioke zergatik eta nola aldatu daitekeen egoera hori.

Horrexegatik, ebaluazio hori, nagusiki, ereduaren DISEINUAren eta, batez ere, EXEKUZIOAren faseetan zentratzea proposatzen dugu.

- **EGOKITASUNA:** Motibazioa/justifikazioa partaidetza-prozesuak sustatzeko orduan.
- **LIDERGOA.** Talde sustatzailearen konpromisoa eta koherentzia: Parte-hartzearen Zerbitzua eta Gobernu Taldea.
- **KOHERENTZIA.** Konexioa/harmonizazioa, batetik, a) aurreikusitako parte-hartzeak izandako hedaduraren eta parte-hartzearen helburuen artean, eta b), horien eta erabiliko den partaidetza-metodologiaren artean.
- **BIDERAGARRITASUNA.** Eskuragarri dauden giza baliabideak eta bitarteko materialak, nahikoak diren ala ez, eta denbora, espazio, heziketa, baliabide ekonomiko, kanpo-laguntza... eta abarren beharrak.

Aurreikusitako garapenarekin alderatuta lortutako maila, jarraipena eta doikuntza, partaidetza-prozesuaren garapenaren kalitatea.

Adierazleak

DISEINUA

Lantzen den herritarren parte-hartzearen ideia (informazio-emailea, aholku-emailea, eztabaida-sortzailea, erabaki-bideratzailea; egonkorra, unean unekoa, eta abar). Inplikaturik dauden eragile instituzional guztiek ideia hori partekatzen dutela egiaztatzea, baita horrek denboran zehar duen bilakaera ere (errutina bihurtzeko arriskuak).

Oso garrantzitsua da alderdi hori, horren mende baitago prozesuei azken legitimazioa ematea eta erakundeek horiekiko konpromisoa erakustea.

Inplikaturak dauden eragile instituzional desberdinen iritzia eta esperientzia jasotzea: gobernu-taldea, oposizioan dauden talde politikoak, udaleko teknikariak.

Metodologiak, dinamikak eta baliabideak egokiak edo nahikoak diren ala ez ikustea.

Prozesu desberdinetan inplikaturak dauden teknikari adituen ezagutza bildu eta sistematizatzea.

EXEKUZIOA

Egindako bi kontsultetatik sortutako proposamenak berrikusi eta prozesua hobetzea ekar dezaketenak jasotzea.

Auzoguneen funtzionamendua berrikustea (esate baterako, Aldabe), horien barne-dinamikak berreraikitzeke, lurralde-partaidetzarako organo hauen konplexutasuna nabarmendu dadin eta horiek hobeto kudeatzeko moduak bilatu daitezten.

Partaidetza-organoen eta Herritartasun Eskolaren edo Gizarte Etxeetako jardueren artean elkarrekintzarik eta sinergiarik zergatik ez dagoen aztertu eta azaltzea.

Parte-hartzaileei informazioa jakinarazteko/itzultzeko estrategia ebaluatzea, arreta berezia eskainiz aztertzen diren eta aztertzen ez diren gaien inguruko azalpenei, erabaki politikoaren mailara iristen direnei, ezartzen direnei... *[Horretarako oso baliagarria izango da adierazleen txantiloia-aren aplikazioa].*

Auzoguneetara eta elkarguneetara joateari utzi dioten elkartearen jarraipena egitea. Horren arrazoiak ezagutzeko hurbilpen bat egitea.

Elkarrekin nola prestatzen dituzte lan-saioak? *[Oso gai garrantzitsua da, bereziki auzo-elkartearen kasuan, herritarren partaidetza hedatzeko eta adar txikiagoetan banatzeko funtsezko tresna baita].*

Auzogune eta elkargune bakoitzera hurbiltzeko estrategia berezi bat proposatzea, horren eginkizun berezia modu partekatuan ebaluatzeko helburuz: beren kokapen edo gai-espezializazioaren arabera aurre egin behar dieten arazo eta zailtasunak, hobetzeko proposamenak, parte hartzeko jardunbide egokiak biltzea...

Auzoguneetan ia ez dago kirol arloko elkarrekin edota erlijio arloko, ezta etorkin eta merkatarien elkarrekin ere.

Horren arrazoiak aztertu.

EMAITZAK

“Parte hartuz bidea egiten” jardunaldian proposatutako **adierazleak** abiapuntutzat hartu, eta partaidetza-organoko guztietara zabaltzea.

- Argi eta garbi ikusteko moduko adierazle errazen multzoa.
- Jardunaldira etorritako pertsonen oso balioespen ona eskaini diote, eta bereziki horren baliagarritasuna onartu zuten.
- Organoetan egindako lanak duen eragin praktikoa (udal politketan) eta hedabideetako neurtzeko aukera ematen dute, eta horrenbestez, oso informazio baliagarria eskaintzen dute organo horiek ezagutzera ematerakoan eta herritarren artean zabaldu daitezela lantzerakoan.
- Organoetan parte hartzen duten elkarte eta entitateak ahalduntzeko edo legitimatzeko modu bat ere badira.

Pertsona proposamen-egileekin beste aukera edo kasu batzuk gehitu daitezkeen berrikustea, eta bereziki, justifikatutako bazterketekin edo aldaketekin zerikusirik dutenak.

ERAKUNDEEN BULTZADA
EZARPEN TEKNIKOA
HERRITARREN ERANTZUNA